## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-3220

AGINDUA, 2001eko maiatzaren 8koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2001eko Euskadi Ikerketa Sariko epaimahaiaren erabakia jakinarazteko.

Maiatzaren 7ko 93/1996 Dekretuak arautzen du Euskadi Ikerketa Saria.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2001eko otsailaren 27ko Aginduaren bidez, Euskadi Ikerketa Sariaren 2001. urterako deialdia egin zen.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2001eko martxoaren 26ko Aginduaren bidez, Euskadi Ikerketa Sariko epaimahaiaren izendapena egin zen. Epaimahai hori 2001eko maiatzaren 5ean bildu zen eta honakoa

EBATZI DUT:

*Artikulu bakarra.*– 2001eko Euskadi Ikerketa Sariko Epaimahaiaren erabakia Juan Uriagereka irakasle jaunaren aldekoa dela jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko maiatzaren 8a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-3220

ORDEN de 8 de mayo de 2001, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se hace público el fallo del Jurado del Premio Euskadi de Investigación para 2001.

El Decreto 93/1996 de 7 de mayo, regula el Premio Euskadi de Investigación.

Por Orden de 27 de febrero de 2001, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se convocó el Premio Euskadi de Investigación para 2001.

Por Orden de 26 de marzo de 2001 del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, se designó la composición del Jurado del Premio Euskadi de Investigación 2001. Habiéndose reunido dicho Jurado el día 5 de mayo de 2001

RESUELVO:

*Artículo único.*– Hacer público el fallo del Jurado del Premio Euskadi de Investigación en su edición 2001, en la persona del Prof. D. Juan Uriagereka.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 2001.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-3221

AGINDUA, 2001eko apirilaren 27koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuarena, Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren Estatutuak onartzen dituena.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskadiko Autonomia Estatutuak, bere 10.22 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoak profesionalen elkargoen eta tituludun lanbideen arloan eskumen esklusiboa duela ezartzen du, Espainiako Konstituzioaren 36 eta 139. artikuluetan xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

Eskumen horri jarraiki emandako azaroaren 21eko 18/1997 Legeak (tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoak), bere 33 eta 45. artikuluetan ezartzen duenez, elkargoen eta Kontseilua-

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-3221

ORDEN de 27 de abril de 2001, del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social, por la que se aprueban los Estatutos del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre, en el artículo 10.22, establece la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Colegios Profesionales y el ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio en lo dispuesto en los Artículos. 36 y 139 de la Constitución Española.

La Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales, dictada en virtud de la citada competencia, establece en sus artículos 33 y 45 que los estatutos co-

ren estatutuak eta beren berrikuntza Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari jakinaraziko zaizkio behin betiko onartzeko (beren legezkotasuna aldez aurretik egiaztatu ondoren), Estatutuekin batera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta Tituludun Lanbideen Erregistroan inskribatuko den Aginduaren bidez.

Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren Estatutuak legeari egokituta daudela egiaztatu ondoren, azaroaren 21eko 18/1997 Legeak (tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoak) ematen dizkidan eskumenei jarraiki

EBATZI DUT

*1. artikulua.–* Onarpena.

Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren Estatutuak onartzea eta, segurtasun juridikoaren ondorioetarako, administrazio edo lan zuzenbideak arautukako zerbitzu-erlazio baten bidez Administrazio Publikoari lotuta dauden profesionalei sendagaigile gisa jarduteko Elkargoan izena ematea exijituko ez zaiela adieraztea. Hala ere, profesional hauek lanbidean modu pribatuan jarduteko elkargoko kide izan beharko dute, tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera horrela exijitzen bada.

*2. artikulua.–* Argitalpena.

Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren Estatutuak Agindu honen Eranskin gisa argitara daitezen agintzea.

*3. artikulua.–* Inskripzioa.

Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren Estatutuak Tituludun Lanbideen Erregistroan inskriba daitezen agintzea (Elkargoa formalki eratzen denean).

AZKEN XEDAPENA

*Bakarra.–* Eraginkortasuna.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko apirilaren 27a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL

legiales y del Consejo, así como su reforma, serán comunicados al Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco para su aprobación definitiva, previa verificación de su legalidad, mediante Orden que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco conjuntamente con los estatutos e inscrita en el Registro de Profesiones Tituladas.

Verificada la adecuación a la legalidad de los Estatutos del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava, en virtud de las competencias que me otorga la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Aprobación.

Aprobar los Estatutos del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava indicando, a efectos de seguridad jurídica, que la incorporación al Colegio para el ejercicio de la profesión de farmacéutico no podrá ser exigido a los profesionales vinculados con la Administración pública mediante relación de servicios regulada por el Derecho administrativo o laboral. No obstante, precisarán de colegiación para el ejercicio privado de su profesión si así fuere exigible de conformidad con lo previsto en el artículo 30 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales.

*Artículo 2.–* Publicación.

Ordenar la publicación de los Estatutos del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava como Anexo a la presente Orden.

*Artículo 3.–* Inscripción.

Ordenar la inscripción de los Estatutos del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava en el Registro de Profesiones Tituladas en el momento en que éste sea constituido formalmente.

DISPOSICIÓN FINAL

*Única.–* Efectividad.

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de abril de 2001.

El Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

ARABAKO SENDAGAIGILEEN ELKARGO OFIZIALAREN ESTATUTUAK.

AURRETIAZKO TITULUA

*1. artikulua.–*

1.– Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofiziala Zuzenbide Publikoko korporazio bat da, Konstituzioaren 36. artikuluak eta azaroaren 21eko 18/97 Legeak (tituludun lanbideei eta Euskadiko profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoak) aintzatetsi eta babesten duena. Nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa du eta bere helburua Arabako Lurralde Historikoko elkargoan kolegiatuta dauden sendagaigile profesionalak ordezkatzea eta horien alde egitea da, gizartearen interes eta behar orokorrekin bat etorriz.

*2. artikulua.–*

Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialak, tituludun lanbideei eta Euskadiko profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/97 Legean xedatutakoari eta Estatutu hauetan agindutakoari jarraituko dio.

Elkargokideek, Elkargoaren antolamenduan eta funtzionamenduan parte hartzeko, ondoko bideak izango dituzte gutxienez:

a) Estatutu hauei jarraiki gobernu-organoetako kideak aukeratzeko sufragio aktibo eta pasiborako eskubidea.

b) Estatutu hauetan xedatu bezala formulatutako ekimenen bidez gobernu-organoen jarduerak sustatzeko eskubidea.

c) Elkargoaren baitan berariazko interesak ordezkatuko dituzten taldeak sortzeko eskubidea. Nolanahi ere, talde hauek gobernu-organoei lotuta egongo dira.

d) Batzar Nagusian honen eskumenekoak diren erabaki guztietan sufragiorako eskubidearekin parte hartzeko eskubidea, Estatutu hauetan finkatutako terminoetan.

*3. artikulua.–* Izena eta helbidea.

Elkargoaren izena «Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofiziala» izango da.

Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren helbidea ondokoa da: Alava Jeneralaren kalea, 21-3, Gasteiz.

Elkargoaren lurralde-esparrua Arabako Lurralde Historikoa izango da. Esparru horretan ezin izango da lanbide bereko beste elkargorik sortu.

*4. artikulua.–*

Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialak, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako elkargoekin batera, Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseilua osatu ahal izango du, betiere araudi aplikagarriari jarraiki.

ESTATUTOS DEL COLEGIO OFICIAL DE FARMACÉUTICOS DE ÁLAVA.

TÍTULO PRELIMINAR

*Artículo 1.–*

1.– El Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava, es una corporación de Derecho Público, reconocido y amparado por el Art. 36 de la Constitución y la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de ejercicio de profesiones tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales, del País Vasco, goza de personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar y tiene como finalidad la representación y defensa de los profesionales farmacéuticos colegiados en el Territorio Histórico de Álava, en congruencia con los intereses y necesidades generales de la sociedad.

*Artículo 2.–*

El Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava se regirá por lo dispuesto en la Ley 18/1997 de Ejercicio de Profesiones colegiadas y de Colegios y Consejos Profesionales del País Vasco y de los presentes Estatutos.

La participación de los colegiados en la organización y funcionamiento del Colegio se desarrollará, como mínimo, a través de las siguientes vías:

a) El derecho de sufragio activo y pasivo para la elección de los miembros a los órganos de gobierno, de acuerdo con los presentes Estatutos.

b) El derecho a promover actuaciones de los órganos de gobierno por medio de iniciativas formuladas en los términos previstos estatutariamente.

c) El derecho a crear agrupaciones representativas de interés específicas en el seno del Colegio, con sometimiento en todo caso a sus órganos de gobierno.

d) El derecho a participar en la Junta General, con pleno derecho de sufragio en todas las tomas de decisión que sean competencia de la misma, en los términos fijados en los presentes Estatutos.

*Artículo 3.–* Denominación y domicilio.

El Colegio se denominará «Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava».

El domicilio del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava se fija en Vitoria-Gasteiz, Calle General Álava n.º 21, 3.º

El ámbito territorial del Colegio será el correspondiente al Territorio Histórico de Álava, dentro del que no podrá crearse otro de la misma profesión.

*Artículo 4.–*

El Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava podrá constituir junto con los demás Colegios de la Comunidad Autónoma del País Vasco el correspondiente Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco de acuerdo con la normativa aplicable.

LEHEN TITULUA

LEHEN ATALA.
ELKARGOAREN OINARRIZKO FUNTZIOAK ETA ESLEIPENAK.

*5. artikulua.–*

1.– Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 24. artikuluak esleitzen dizkion funtzioak betetzea dagokio Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialari (bere lurralde-esparruan).

2.– Eskumen orokorraren kaltetan izan gabe, ondoko oinarrizko funtzioak ditu berariaz esleituta:

1) Legeen eta bere eskumenaren esparruan, sendagaigileen lanbidearen jarduna zuzentzea, praktika egokia, deontologia eta lanbide-duintasuna zaintzea eta lanbide-jarduna (bere modalitate ezberdinetan) arautzen duten xedapenen betetzea ikuskatzea.

2) Sendagaigile-lanbidearen jarduna herritarren osasuna sustatzera zuzenduta dagoela ziurtatzea eta helburu hori lortzeko gainerako osasun-lanbideekin eta botere publikoekin lankidetzan aritzea.

3) Osasun-agintaritzari farmazia-bulegoak zabaltzeko eta ixteko ordutegiak proposatzea eta, hala badagokio, indarrean dagoen araudiaren esparruan, baimentzea. Halaber, guardia eta larrialdi txandak zuzentzea eta, hala badagokio, oporrak arautzea herritarren zerbitzurako prestazioan jarraitasun-printzipioa bermatzeko.

4) Sendagaigile-lanbidea eraginpean hartzen duen legeriaren betetze zorrotza zaintzea eta lanbidearen jardun egoki eta legezkoa eta elkargokideen eginkizun eta betebeharren betetzea ziurtatzea. Horretarako, Batzorde Deontologiko bat eta Elkargoko ikuskapen-zerbitzu bat sortu ahal izango ditu.

5) 18/97 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera Administrazioak eskuordetzan ematen dizkion funtzioak betetzea.

6) Lanbidearen gizarte, zientzia, kultur eta lan sustapena bultzatzea eta sendagaigileen etengabeko prestakuntzari lehentasuna ematea eta, horrela, etengabeko lanbide-prestakuntza bat eskuragarri izateko betebeharra ahalbidetzea.

7) Elkargoko sendagaigileen elkartasun eta aurrerabide profesionala sustatzea.

8) Azterketa-planak lantzea eta graduatu-ondokoen etengabeko espezializazio eta prestakuntzarako ikastaroak egitea.

TÍTULO PRIMERO

SECCIÓN PRIMERA.
DE LAS FUNCIONES BÁSICAS Y ATRIBUCIONES DEL COLEGIO.

*Artículo 5.–*

1.– Corresponde al Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava, en su ámbito territorial, el ejercicio de las funciones que le atribuye el artículo 24 de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre de Ejercicio de las Profesiones Tituladas y de los Colegios y Consejos Profesionales.

2.– Sin perjuicio de la competencia general, le están atribuidas específicamente las siguientes funciones básicas:

1) Ordenar en el marco de las leyes y en el ámbito de su competencia el ejercicio de la profesión farmacéutica, velando por la buena práctica, deontología y la dignidad profesional, supervisando el cumplimiento de las disposiciones reguladoras del ejercicio profesional en sus diversas modalidades de ejercicio.

2) Velar para que el ejercicio de la profesión farmacéutica esté dirigido a la promoción de la salud de los ciudadanos, cooperando con las demás profesiones sanitarias y poderes públicos en la consecución de este objetivo.

3) Ordenar, proponer a la autoridad sanitaria y, en su caso, autorizar, en el marco de la normativa vigente, los horarios de apertura y cierre de las Oficinas de Farmacia. Ordenar los turnos de guardia y de urgencia y regular, en su caso, las vacaciones, a fin de que se garantice el principio de continuidad en la prestación del servicio a la comunidad.

4) Vigilar el estricto cumplimiento de la legislación que afecte a la profesión farmacéutica y velar por un legal y adecuado ejercicio de la profesión, así como por el cumplimiento de los deberes y obligaciones de los colegiados, pudiendo crearse a tal fin una Comisión Deontológica y dotarse de un servicio de Inspección Colegial.

5) Ejercer, las funciones que le sean delegadas por la Administración según lo previsto en el Art. 25 de la Ley 18/1997.

6) Estimular la promoción social, científica, cultural y laboral de la profesión y promover de forma preferente la formación continuada de los farmacéuticos, posibilitando el deber de dotarse de una formación profesional permanente.

7) Fomentar la solidaridad y progreso profesional de los farmacéuticos colegiados.

8) Participar en la elaboración de planes de estudio y en la realización de cursos de especialización y formación continuada de postgraduados.

9) Ikerketa sustatzea; horretarako, irakaskuntza eta prestakuntzarako eta azterketak egiteko ikerketa-laborategiak sortu ahal izango ditu.

10) Elkargoarekin eta sendagaigileen lanbidearekin zerikusia duten argitalpen guztiak editatzea.

11) Bere esparruan eta Administrazioaren, erakundeen, auzitegien, entitateen eta partikularren aurrean, lanbidearen ordezkaritza eta defentsa bere gain hartzea, Elkargoaren lanbide-interesak eta helburuak eraginpean hartzen dituzten auzi eta kausa guztietan alderdi izateko legitimazioarekin. Halaber, bera ordezkatzeko eta defendatzeko ahalordeak eman ahal izango ditu, betiere legeei jarraiki.

12) Lurralde-administrazio publikoetako organo aholku-emaileetan eta batzordeetan parte hartzea, hauek hala eskatzen diotenean edo legeetan xedatuta dagoenean.

13) Azterlanak, txostenak, irizpenak, estatistikak eta bere helburuekin zerikusia duten bestelako jarduerak eginez, administrazioekin, epaitegiekin eta auzitegiekin lankidetzan aritzea.

14) Lanbide-intrusismoa, profesionalen arteko lehia desleiala, erabiltzaileek farmazia aukeratzeko duten askatasuna mugatzen duten akordioak eta sendagaien prezioen eta zerbitzuengatik jaso beharreko ordainsarien arloko xedapenak urratzen dituztenak saihestera zuzendutako neurriak hartzea.

15) Elkargoaren barruan lanbide-jardunaren edo kolegiazioaren modalitate ezberdinentzako sailak eratzea.

16) Elkargokideen gaineko diziplinazko ahalaz baliatzea, lanbide-betebeharrak eta lanbide-jarduna arautzen duten legezko xedapenak urratzen dituztenean.

17) Elkargoaren aurrekontuak landu eta onartzea eta Elkargoaren kuotak (ohikoak eta ezohikoak, finkoak edo aldakorrak), elkargokideek ordaindu beharreko derramak eta Elkargoak egindako jarduerengatik bereak edo eskuordetzan emandakoak) ordaindu beharreko diru-kontraprestazioak finkatzea.

18) Aldez aurretik hala eskatuta, adiskidetze edo arbitraje bidean esku hartzea, arrazoi profesionalen ondorioz elkargokideen artean sortzen diren auzietan eta elkargokideen eta hirugarrenen artean sortzen diren eta ebazteko bere esku uzten diren auzietan.

19) Elkargokideen lanbide-jarduna hobeto bideratu eta defendatzeko beharrezkoak diren aholkularitza zientifiko, juridiko, administratibo, laboral eta fiskaleko zerbitzu eta jarduera guztiak antolatu eta burutzea.

20) Bere ondareari dagokionez eta inolako salbuespenik gabe, xedapen, administrazio eta karga egintza oro egitea.

9) Fomentar la investigación, pudiendo instalar Laboratorios de Investigación con fines docentes, formativos y para la práctica de análisis.

10) Editar toda clase de publicaciones, relacionadas con el Colegio y la profesión farmacéutica.

11) Ostentar en su ámbito la representación y defensa de la profesión ante la Administración, Instituciones, Tribunales, Entidades y particulares con legitimación para ser parte en cuantos litigios y causas afecten a los intereses profesionales y fines del colegio, pudiendo otorgar poderes para su representación y defensa, de conformidad con las leyes.

12) Participar en los Organos consultivos y Comisiones de las Administraciones Públicas territoriales, cuando éstas se lo requieran o esté previsto en las leyes.

13) Colaborar con las Administraciones y con los Juzgados y Tribunales, mediante la realización de estudios, emisión de informes, dictámenes, elaboración de estadísticas y otras actividades relacionadas con sus fines.

14) Adoptar las medidas conducentes a evitar el intrusismo profesional, la competencia desleal entre profesionales, los acuerdos que coarten la libertad de elección de farmacia por parte de los usuarios y aquellos otros que contravengan las disposiciones en materia de precios de medicamentos y honorarios a percibir por la prestación de servicios.

15) Constituir secciones en el seno del Colegio para las distintas modalidades del ejercicio profesional o colegiación.

16) Ejercer la potestad disciplinaria sobre sus colegiados, cuando infrinjan los deberes profesionales y las disposiciones legales reguladoras del ejercicio profesional.

17) Elaborar y aprobar los Presupuestos del Colegio y fijar las cuotas de colegiación, ordinarias y extraordinarias, fijas o variables, y derramas que deben satisfacer sus colegiados, así como las contraprestaciones pecuniarias que deben abonar por actuaciones que realice el Colegio, tanto suyas como delegadas.

18) Intervenir, previa solicitud, en vía de conciliación o arbitraje en las cuestiones que por motivos profesionales se susciten entre colegiados, así como aquéllas que, promovidas entre colegiados y terceros, le sean sometidas para su resolución.

19) Organizar y prestar cuantos servicios y actividades de asesoramiento científico, jurídico, administrativo, laboral y fiscal o de cualquier otra naturaleza fueren necesarios para la mejor orientación y defensa de los colegiados, en el ejercicio profesional.

20) Realizar respecto de su patrimonio, y sin exclusión, toda clase de actos de disposición, administración y gravamen.

21) Gainerako elkargoekin, erkidegoetako elkargoen kontseiluekin, Sendagaigileen Elkargoen Kontseilu Nagusiarekin, udalekin, aldundiekin eta abar lankidetza-hitzarmenak ezartzea.

22) Elkargokideek lanbide-jardunaren modalitateetan egiten duten publizitatea ezartzea eta arautzea, osasun-publizitatearen arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzearen kaltetan izan gabe.

23) Farmazia-bulegoak iragarri eta adierazten dituzten errotulu eta kartelak ipintzeko baimenak arautzea erabiltzaileek errazago aurkitzeko helburu bakarra izan dezaten.

24) Osasun Administrazioarekin lankidetzan aritzea interes komunak lortzeko eta, bereziki, erabiltzaileei farmazia-laguntza egokia emateko. Horrela, horretarako beharrezkoak diren akordioak, kontratuak eta kontzertuak sustatuko dira.

25) Sendagaigileen ordainsarien kobrantzaz arduratzea eta, bereziki, Euskadiko Osasun Sistemako erabiltzaileei eta Elkargoarekin horretarako kontzertuak izenpetuta dituzten gainerako erakundeei emandako farmazia-prestazioengatiko fakturazioaren kobrantza kudeatu, bideratu eta burutzea, arlo honetan indarrean dagoen legerian xedatutakoari jarraiki eta izenpetzen diren kontzertuetan jasota dagoen bezala.

26) Autonomia Erkidegoko Administrazioari ezagutzen dituen arauz kontrako jarduera guztien berri ematea, Administrazio edo Lan Zuzenbideak araututako zerbitzu-erlazio bidez euskal administrazio publikoei lotuta dauden profesionalen ordainsari-bateraezintasunen eta bateraezintasun funtzionalen arloko legeriaren aurka daudenean.

27) Elkargokideek aseguramendu-betebeharra betetzen dutela bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, 18/97 Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

28) Sendagaigileek sekretu profesionalaren eskubidea eta betebeharra betetzen dituztela ziurtatzea.

29) Orientagarriak izango diren ordainsari profesionalen baremoak ezartzea.

30) Farmazia-fakultateekin tutoretzapeko praktikak garatzen, sendagaigileen etengabeko espezializazio eta prestakuntzarako ikastaroak egiten eta, hala badagokio, ikasketa-planak lantzen parte hartzea.

31) Elkargoko bulegoen organigrama eta funtzionamendua jasoko duten barne-araubideko arauak onartzea.

32) Sendagaigileen lanbiderako onuragarriak edo interesgarriak diren eta Elkargoaren helburuak betetzera zuzenduta dauden gainerako funtzio guztiak, bai eta legeek esleitzen dioten edo eskuordetzan ematen zaion beste edozein ere.

21) Establecer acuerdos de cooperación con los demás Colegios, Consejos de Colegios Autonómicos y Consejo General de Colegios Farmacéuticos, así como con Ayuntamientos, Diputaciones, etc.

22) Establecer y regular, en su caso, la publicidad que puedan realizar los colegiados en las modalidades del ejercicio de la profesión, sin perjuicio del cumplimiento de lo dispuesto en la normativa vigente en materia de publicidad sanitaria.

23) Regular las autorizaciones de rótulos y carteles anunciadores e indicadores de Oficinas de Farmacia, en orden exclusivamente a facilitar su localización por los usuarios.

24) Colaborar con la Administración sanitaria en el logro de intereses comunes y en particular en procurar una correcta asistencia farmacéutica para los usuarios promoviendo los acuerdos, contratos y conciertos que sean necesarios para lograr este fin.

25) Encargarse del cobro de las percepciones u honorarios de los farmacéuticos y en particular, gestionar, tramitar y realizar el cobro de la facturación por las prestaciones farmacéuticas a los usuarios del Sistema Sanitario de Euskadi y demás entidades con las que se firmen conciertos al efecto, con arreglo a lo dispuesto en la legalidad vigente en la materia y en los términos recogidos en los conciertos que se suscriban.

26) Comunicar a la Administración de la Comunidad Autónoma toda actuación irregular de que tenga conocimiento contraria a la Legislación en materia de incompatibilidades funcionales y retributivas de los profesionales vinculados con las Administraciones Públicas Vascas mediante relación de servicios regulada por el Derecho Administrativo o Laboral.

27) Adoptar las medidas necesarias para garantizar el cumplimiento del deber de aseguramiento por parte de los colegiados, según lo previsto en el Art. 13 de la Ley 18/1997.

28) Velar por que los farmacéuticos participen del derecho y del deber del secreto profesional.

29) Establecer baremos de honorarios profesionales, que tendrán carácter orientativo.

30) Participar con las facultades de farmacia en el desarrollo de las prácticas tuteladas, realización de cursos de especialización y formación continuada de los farmacéuticos, colaborando, en su caso, en la elaboración de los planes de estudio.

31) Aprobar las normas de régimen interior en las que se contemple el organigrama y funcionamiento de las oficinas del Colegio.

32) Todas las demás funciones que sean beneficiosas o tengan interés para la profesión farmacéutica y se encaminen al cumplimiento de los objetivos colegiales, así como cualquier otras que le atribuyan las leyes o le sean delegadas.

33) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sendagaigileen lanbideari buruz egiten dituen xedapen guztietan aginduzko txostena egitea, Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseilua legez eratuta ez dagoen bitartean.

BIGARREN ATALA.
ARABAKO SENDAGAIGILEEN ELKARGO OFIZIALAREN ANTOLAMENDUA

*6. artikulua.–* Gobernu-organoak.

1.– Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren oinarrizko organoak ondokoak dira:

a) Elkargokideen Batzar Nagusia.

b) Gobernu Batzordea.

c) Lehendakaritza.

2.– 18/97 Legearen 34. artikuluko 2. paragrafoan emandako ahalmenetan oinarrituta, Elkargo honek Gobernu Batzordearen menpeko organo aholku-emailea izango den SAILEKO ORDEZKARITZEN BATZORDEA sortzen du. Saileko kideek, aldi berean, SAILEKO BATZARRERAKO deialdia egin ahal izango diete sailean kolegiatutako sendagaigileei.

*7. artikulua.–*

1.– Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren Batzar Nagusia elkargokideen borondatea ordezkatzeko eta adierazteko organo gorena eta ahalmen osoa duena da eta elkargokide guztiek osatuko dute (beren korporazio-eskubideez baliatuz).

2.– Batzar Nagusiari ondoko oinarrizko esleipenak dagozkio:

a) Estatutu hauek, Barne Araudia (baldin badago) eta, oro har, Elkargoaren esparruan agindu behar duten arau orokor guztiak onartu eta aldatzea.

b) Aurrekontuak, ekitaldiko kontuak eta elkargokideek ordaindu beharreko ohiko eta ezohiko kuoten zenbatekoa onartzea.

c) Elkargoaren ondasun higiezinak erabili edo besterentzea.

d) Bidezkoa bada, Gobernu Batzordearen edo edozein kideren zentsura-mozioa onartzea, Estatutuetan ezarritako prozedurari jarraiki.

e) Oro har, Gobernu Batzordeak, elkargokideen %20k, diharduten elkargokideen %10ek edo saileko kideek proposatutako erabakiak hartzea, 9.4 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

3.– Batzar Nagusia ohiko edo ezohiko izaeraz bildu ahal izango da, Estatutu hauetan xedatutakoari jarraiki.

Ohiko bilera urtero behin egingo da gutxienez eta, ezohikoa berriz, Lehendakariak edo Gobernu Batzor-

33) Emitir Informe preceptivo en todas las disposiciones que se elaboren por la Administración Autonómica del País Vasco referidas a la profesión farmacéutica, en tanto no esté legalmente constituido el Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco».

SECCIÓN SEGUNDA.
ORGANIZACIÓN DEL COLEGIO OFICIAL DE FARMACÉUTICOS DE ÁLAVA

*Artículo 6.–* Organos de Gobierno

1.– Los Organos básicos del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava son:

a) La Junta General de Colegiados.

b) La Junta de Gobierno.

c) La Presidencia

2.– En base a las facultades conferidas en el apartado 2.º del artículo 34. de la Ley 18/1997 este Colegio crea la JUNTA DE VOCALIAS DE SECCIÓN, que será un órgano consultivo y dependiente de la Junta de Gobierno. Los vocales de sección, a su vez, podrán convocar a los farmacéuticos colegiados en la sección a la ASAMBLEA DE SECCIÓN correspondiente.

*Artículo 7.–*

1.– La Junta General del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava, es el órgano supremo y soberano de representación y expresión de la voluntad de los colegiados, y estará constituida por la totalidad de los mismos en el ejercicio de sus derechos corporativos.

2.– Corresponden a la Junta General las siguientes atribuciones básicas:

a) Aprobación y modificación de los presentes Estatutos y del Reglamento de Régimen Interior si lo hubiere y, en general, todas las normas generales que deben regir en el ámbito del Colegio.

b) La aprobación de los Presupuestos, Cuentas del ejercicio y la cuantía de las cuotas ordinarias y extraordinarias que deberán satisfacer los Colegiados.

c) La disposición o enajenación de los bienes inmuebles del Colegio.

d) La aprobación de la Moción de Censura, si procede, de la Junta de Gobierno, o de cualquiera de sus miembros de conformidad con el procedimiento que establezcan los Estatutos.

e) En general la adopción de acuerdos que sean propuestos por la Junta de Gobierno o el 20% de los colegiados o el 10% de los ejercientes, o por los vocales de sección, según lo dispuesto en el artículo 9.4.

3.– La Asamblea General podrá reunirse con carácter ordinario o extraordinario, de conformidad con lo dispuesto en los presentes Estatutos.

Al menos una vez al año se celebrará reunión ordinaria y, con carácter extraordinario, siempre que lo

deak erabakitzen duenean edo elkargokide guztien %20k edo diharduten elkargokideen %10ek idatziz eskatzen dutenean (aztertu beharreko gaia adierazita).

4.– Ohiko zein Ezohiko Batzar Nagusietarako deialdiak Lehendakariak edo Gobernu Batzordeak egingo ditu 10 eguneko aurretiaz gutxienez.

Deialdia Elkargoko iragarki-taulan ipiniko da eta elkargokide bakoitzari bidaliko zaio postaz, Gobernu Batzordeko idazkariak sinatua eta Lehendakariaren ontzat emanarekin. Deialdiak, gai-zerrendaz gain, bilera lehen eta bigarren deialdian egiteko lekua, eguna eta ordua adieraziko du. Lehen eta bigarren deialdiaren artean gutxienez 30 minutuko denbora-tartea itxaron beharko da.

Premiazko izaera duten Ezohiko Batzar Nagusietarako deialdia 3 eguneko aurretiaz –gutxienez– egin ahal izango da.

Batzar Nagusia lehen deialdian balio osoz eratuta geratuko da kideen gehiengo sinplea biltzen denean; bigarren deialdian berriz, balio osoz eratuta geratuko da bertaratutako kideen kopurua edozein izanik ere.

Elkargokide guztiek Batzarretara hitz eta botoarekin joateko eskubidea dute eta erabakiak gehiengo sinplez hartuko dira.

Arau orokor gisa, ez da eskuordetzan emandako botorik onartuko, Batzar Nagusiaren deialdian onarpena berariaz adierazita dagoenean izan ezik. Eskuordetzan emandako botoa onartzeko, eskuordetza idatziz jaso beharko da.

Bozketak eskua jasotzeko sistemaren bidez egin ahal izango dira, bertaratutakoren batek sekretua izatea eskatzen duenean izan ezik.

Elkargokideekin eta beren ohorearekin zerikusia duten alderdiei buruzko bozketak sekretuak izango dira beti.

Aldez aurretik ezarritako gai-zerrendan agertzen diren gaiei buruzko erabakiak besterik ezingo dira hartu.

5.– Batzar Nagusian hartutako erabakiak betearazleak izango dira, bidezkoak diren errekurtsoen kaltetan izan gabe. Halaber, nahitaezkoak eta lotesleak izango dira elkargokide guztientzat.

*8. artikulua.*– Gobernu Batzordea, bertako kideak, esleipenak eta funtzionamendu-araubidea.

1.– Elkargoko Gobernu Batzordea Batzar Nagusiaren erabakien organo betearazlea da eta Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren zuzendaritza, programazioa, kudeaketa eta administrazioa bere gain hartzen ditu.

2.– Gobernu Batzordeei, Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren helburuak lortzeko beharrezkoak diren zuzendaritza eta administrazioko eskumen eta es-

acuerde el Presidente, la Junta de Gobierno o lo soliciten el 20% de todos colegiados o el 10% de los colegiados ejercientes por escrito, con expresión del asunto a tratar.

4.– Las convocatorias de las Asambleas Generales, tanto ordinarias como extraordinarias, se efectuarán por el Presidente o la Junta de Gobierno con una antelación de al menos 10 días a la fecha de su celebración.

La convocatoria se insertará en el tablón de anuncios del Colegio y se remitirá por correo a cada colegiado suscrita por el Secretario de la Junta de Gobierno con el visto bueno del Presidente que, además del orden del día, deberá indicar el lugar, fecha y hora de su celebración en primera y segunda convocatoria que deberán venir espaciadas con un mínimo de 30 minutos de tiempo.

La convocatoria de Juntas Generales Extraordinarias que tengan el carácter de urgencia, podrá convocarse con una antelación mínima de 3 días.

La Junta General quedará válidamente constituida en primera convocatoria, cuando concurran la mayoría simple de sus miembros. En segunda convocatoria, quedará válidamente constituida con cualesquiera que sea el número de miembros presentes.

Todos los colegiados tienen derecho de asistencia a las Juntas con voz y voto, y los acuerdos se tomarán por mayoría simple.

Como norma general no se admitirá el voto delegado, salvo que expresamente venga señalada su admisión en la convocatoria de la Junta General. Para admitir la delegación de voto ésta deberá constar por escrito.

Las votaciones se podrán efectuar por el sistema de mano alzada salvo que alguno de los asistentes solicite que se haga secreta.

Serán siempre secretas las votaciones que afecten a cuestiones relativas a la persona y decoro de los colegiados.

Sólo se podrán adoptar acuerdos sobre asuntos que figuren en el orden del día previamente establecido.

5.– Los acuerdos adoptados en Junta General serán ejecutivos, sin perjuicio de los recursos procedentes, y serán obligatorios y vinculantes para todos los colegiados.

*Artículo 8.*– Junta de Gobierno, sus miembros, atribuciones y régimen de funcionamiento.

1.– La Junta de Gobierno del Colegio es el Organo de ejecución de los acuerdos de la Junta General y asume la dirección, programación, gestión y administración del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava.

2.– A las Juntas de Gobierno corresponderán todas la competencias y atribuciones de dirección y administración necesarias para la consecución de los fines del

leipen guztiak dagozkie, bai eta Batzar Nagusiari berariaz eman ez zaizkion eta Estatutu hauetan eta indarrean dagoen legerian bereziki xedatuta daudenak ere.

3.– Gobernu Batzordea osatuko duten kideak sufragio unibertsal, aske, zuzen eta sekretu bidez aukeratuko dira. Ondokoak izango dira gutxienez:

a) Lehendakaria.

b) Lehendakariorde bat.

c) Idazkari bat.

d) Diruzain bat.

e) Kontulari bat.

f) Zenbakiko batzordekideak. 100 batzordekidez osatutako multzo edo zatiki bakoitzeko zenbakiko ordezkaritza bat eratuko da.

4.– Lehendakariaren eta Gobernu Batzordeko gainerako kideen esleipenak eta funtzioak ondokoak dira:

a) Lehendakaria:

1.– Botere publiko, erakunde, korporazio eta pertsonen aurrean Elkargoaren ordezkaritza ofiziala izango du.

2.– Gobernu Batzordearen, Batzar Nagusiaren, Ordezkaritzen Batzordearen eta laneko batzorde eta talde guztien bilerak zuzenduko ditu. Eztabaidak zuzenduko ditu eta, berdinketarik izanez gero, kalitateko botoa izango du.

3.– Elkargoaren fondoen inbertsiorako igorpenak luzatuko ditu.

4.– Bidezkotzat hartzen duenean korrespondentzia berrikusiko du eta Elkargoak esku hartu behar dueneko gai guztietan jardungo du. Zeregin hori eskuordetzan eman ahal izango dio Lehendakariordeari.

5.– Gobernu Batzordearen eta Batzar Nagusien bileren gai-zerrenda finkatuko du.

6.– Elkargoaren ordezkari gisa, sendagaigile-lanbidea eraginpean hartzen duten eskubideen inguruan auzitan aritzeko eta ekintzak egiteko botere-mandataritza prokuradoreei eman ahal izango die eta letratua izendatu ahal izango du.

b) Lehendakariordea:

Lehendakariak ematen dizkion funtzio guztiak beteko ditu eta Lehendakariarenak bere gain hartuko ditu hau ez dagoenean edo uko, gaixotasun edo heriotzaren kasuan.

c) Idazkaria:

1.– Elkargoaren egintza guztietarako zitazio-ofizioak idatzi eta zuzentzea, Lehendakariarengandik jasotzen dituen jarraibideen arabera eta behar bezalako aurretiaz.

2.– Batzar Nagusietako aktak eta Gobernu Batzordeak eta Ordezkaritzen Batzordeak egiten dituzten bileretakoak idaztea eta beren edukien fede ematea.

Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava y las específicamente previstas en los presentes Estatutos y en la legislación vigente y que no hayan sido otorgados expresamente a la Junta General.

3.– La Junta de Gobierno estará integrada, como mínimo, por los siguientes miembros, los cuales habrán de ser elegidos de entre todos los colegiados por sufragio universal, libre, directo y secreto:

a) El Presidente.

b) Un Vicepresidente.

c) Un Secretario.

d) Un Tesorero.

e) Un Contador.

f) Vocales de Número. Por cada 100 colegiados o fracción se constituirá una vocalía de número.

4.– Las atribuciones y funciones del presidente y demás miembros de la Junta de Gobierno son las siguientes:

a) Presidente:

1.– La representación oficial del Colegio ante los poderes públicos, entidades, corporaciones y personalidades.

2.– Presidirá las reuniones de la Junta de Gobierno, Junta General y Junta de Vocalías y de todas las comisiones, comités y demás grupos de trabajo, dirigiendo las discusiones y con voto de calidad en caso de empate.

3.– Expedirá, además, los libramientos para la inversión de los fondos del Colegio.

4.– Revisará la correspondencia cuando lo estime pertinente y actuará en toda clase de asuntos en que el Colegio deba intervenir, pudiendo delegar en el Vicepresidente.

5.– Fijará el Orden del Día de las reuniones de Juntas de Gobierno y Juntas Generales.

6.– Como representante del Colegio podrá otorgar el correspondiente mandato de poder a favor de Procuradores y designar Letrado, para litigar derechos o ejercitar acciones de todo orden que a la profesión farmacéutica afecten.

b) Vicepresidente:

Llevará a cabo todas aquellas funciones que le confiera el Presidente, asumiendo las de éste en caso de ausencia, renuncia, enfermedad o fallecimiento.

c) Secretario:

1.– Redactar y dirigir los oficios de citación para todos los actos del Colegio, según las instrucciones que reciba del Presidente y con la anticipación debida.

2.– Redactar las actas de las Juntas Generales y las que celebre la Junta de Gobierno y la Junta de Vocalías, dando fe de su contenido.

3.– Zerbitzu hobea eta eraginkorragoa lortzeko beharrezkoak diren liburuak eta artxiboak eramatea. Horien artean, dokumentuen sarrera eta irteerari buruzko erregistro bat, elkargokideen erregistro bat, elkargokideei jarritako zehapenen erregistro bat eta tituluen erregistro-liburu bat egongo dira nahitaez.

4.– Elkargoari igortzen zaizkion eskaera eta komunikazio guztiak jasotzea eta Lehendakariari jakinaraztea.

5.– Lehendakariaren ontzat emanarekin, interesdunek eskatzen dituzten ziurtagiriak luzatzea.

6.– Elkargoaren bulegoak antolatu eta zuzentzea eta langileen burutza edukitzea.

7.– Elkargoaren artxiboa eta zigilua bere kargu izatea.

d) Diruzaina:

1.– Diru-bilketa burutzea eta Elkargoaren fondoak zaintzea.

2.– Lehendakariak luzatzen dituen igorpenak ordaintzea.

3.– Gobernu Batzordeari, aldizka, sarrera eta gastuen kontuaren eta aurrekontuaren martxaren berri ematea eta amaitutako ekitaldi ekonomikoaren kontuak urtero formalizatzea.

4.– Gobernu Batzordeak Batzar Nagusiak onartzeko aurkeztu beharreko urteko aurrekontuak idaztea.

5.– Lehendakariarekin edo horretarako ahalmena jaso duen Gobernu Batzordeko beste edozein kiderekin solidarioki edo komunean, banku-kontuetako fondoak sartu eta ateratzea.

6.– Elkargoaren ondasunen inbentario zehatza eramatea. Gainera, ondasun horien administratzailea izango da.

7.– Kontabilitatea kontrolatzea eta kutxa egiaztatzea.

e) Kontularia:

Diruzainarekin batera kontabilitate-liburuak konparatu eta sinatzea eta diruzaina ordeztea hau ez dagoenean edo uko, gaixotasun edo heriotzaren kasuan.

f) Artikulu honetako 3.f) idatz-zatian adierazitako batzordekideak:

Gobernu Batzordeak agindutako funtzioak beteko dituzte.

Bozketetan berdinketarik izanez gero, Lehendakariak kalitateko botoa izango du.

5.– Lehendakaria eta Gobernu Batzordeko gainerako kideak bozketa aske, zuzen eta sekretu bidez aukeratuko dira Estatutu hauetan finkatzen den moduan.

6.– a.– Gobernu Batzordea hilean behin bilduko da gutxienez. Halaber, Lehendakariak erabakitzen duenean edo kideen ehuneko hogeik eskatzen dutenean bilduko da.

3.– Llevar los libros y archivos necesarios para el mejor y más eficiente servicio, debiendo existir obligatoriamente un registro de entrada y salida de documentos, un registro de colegiados, un registro de sanciones a los colegiados así como un libro de registro de títulos.

4.– Recibir y dar cuenta al Presidente de todas las solicitudes y comunicaciones que se remitan al Colegio.

5.– Expedir con el visto bueno del Presidente las certificaciones que se soliciten por los interesados.

6.– Organizar y dirigir las oficinas colegiales y ostentar la Jefatura de Personal.

7.– Tener a su cargo el archivo y sello del Colegio.

d) Tesorero:

1.– Materializar la recaudación y custodiar los fondos del Colegio.

2.– Pagar los libramientos que expida el Presidente.

3.– Informar periódicamente a la Junta de Gobierno de la cuenta de ingresos y gastos y marcha del presupuesto, y formalizar anualmente las cuentas del ejercicio económico vencido.

4.– Redactar los presupuestos anuales que la Junta de Gobierno haya de presentar a la aprobación de la Junta General.

5.– Ingresar y retirar fondos de las cuentas bancarias, solidaria o mancomunadamente, con el Presidente o con cualquier otro miembro de la Junta de Gobierno que haya sido facultado para este fin.

6.– Llevar inventario minucioso de los bienes del Colegio, de los que será administrador.

7.– Controlar la contabilidad y verificar la Caja.

e) Contador:

Confrontar y firmar los Libros de Contabilidad conjuntamente con el Tesorero y sustituir a éste en caso de ausencia, renuncia, enfermedad o fallecimiento.

f) Vocales correspondientes al apartado 3.f) del presente artículo:

Desempeñaran las funciones que se les encomiende por la Junta de Gobierno.

En caso de empate en las votaciones, el voto del Presidente será de calidad.

5.– El Presidente y los demás miembros de la Junta de Gobierno serán elegidos mediante votación libre, directa y secreta en la forma que se determina en los presentes Estatutos.

6.– a.– La Junta de Gobierno se reunirá al menos una vez al mes. También se reunirá siempre que lo acordase el Presidente o lo solicitasen el veinte por ciento de sus miembros.

b.– Idazkariak Gobernu Batzordearen bileretarako deialdiak berrogeita zortzi orduko aurretiaz egingo ditu, Lehendakaritzak aldez aurretik agindu ondoren. Deialdiak ondoko alderdiak adieraziko ditu:

– Bileraren lekua, eguna eta ordua, lehen deialdian eta bigarrenean. Bigarren deialdiko bilera, nahitaez, egun eta leku berean eta ordu-erdi geroago egingo da.

– Gai-zerrenda, ahal bezain garbi eta zehatz.

– Aztertu beharreko gaiei buruz beharrezkoa den informazioa.

– Aurreko bilkurako Aktaren zirriborroaren kopia, bilkura horretan bertan onartzen denean izan ezik.

c.– Gai-zerrendan barne hartu gabeko gairik ezin izango da eztabaidatu edo erabaki, Gobernu Batzordeko kide guztiak daudenean eta gehiengoaren aldeko botoaren bidez gaia premiazkotzat hartzen denean izan ezik.

d.– Gobernu Batzordeko kide guztiek Batzordearen bileretara joan beharko dute nahitaez. Gobernu Batzordea, lehen deialdian kideen erdiak gehi bat joaten direnean hartuko da eratutzat. Lehen deialdian quorumik ez badago, Gobernu Batzordea bigarren deialdian bilduko da eta joaten diren kideekin eratuko da balio osoz. Gobernu Batzordeak Lehendakariak zuzenduko ditu beti eta, bera ez dagoenean, Lehendakariordeak.

e.– Erabaki guztiak botoen gehiengo bidez hartuko dira. Berdinketarik izanez gero, Lehendakariak «kalitateko botoa» izango du.

f.– Hartutako erabakiak Aktan islatuko dira. Akta onartu aurretik, Idazkariak sinatuko du Lehendakariaren ontzat emanarekin.

g.– Zortzigarren artikuluko idatz-zati honetan arautu gabekoari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (azaroaren 26ko 30/1992 Legea) 22-27. artikuluetan ezarritakoak aplikazio osagarria izango du, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak sartutako aldaketekin.

***9. artikulua.***– Saileko Ordezkaritzen Batzordea eta Saileko Batzarra.

Sortzen den Saileko Ordezkaritzen Batzordea Lehendakariak, Idazkariak eta Elkargoaren baitan balio osoz eratutako sail bakoitzeko batzordekide batek osatuko dute.

1.– Dagokien jardun-modalitateetan edo kolegiaziomodalitateetan diharduten elkargokide guztiek sail horietara inkorporatu beharko dute.

2.– Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialean ondoko sailak eratzen dira (bakoitzaren buruan ordezkaritza bat izango da):

b.– El Secretario convocará las reuniones de la Junta de Gobierno, previo mandato de la Presidencia, con al menos cuarenta y ocho horas de antelación. La convocatoria contendrá:

– La fecha, hora y lugar de la reunión en primera y segunda convocatoria, que preceptivamente se hará para el mismo día, en el mismo lugar y media hora más tarde.

– El Orden del Día, con la mayor claridad y concreción.

– La información necesaria de los asuntos a tratar.

– Copia del borrador de Acta de la sesión anterior, salvo en el supuesto de que hubiese sido aprobada en la misma sesión.

c.– No podrá ser objeto de deliberación o acuerdo ningún asunto que no figure incluido en el Orden del Día, salvo que estén presentes todos los miembros de la Junta de Gobierno y sea declarada la urgencia del asunto por el voto favorable de la mayoría.

j) Legez ezarritakoez bestelako establezimenduetan sendagaiak eskaintzea eta zeharkako edozein salmentamotatan eta etxez-etxeko edo mezulari-zerbitzu bidezko sendagaien salmentan jardutea.

k) Gaixoaren duintasuna eta tratamendu bat onartu edo baztertzeko askatasunerako duen eskubide indibiduala ez errespetatzea.

l) Formalki eskatu ondoren, Elkargoko kuotak edo bestelako diru-sarrerak ez ordaintzea.

f) La infracción del régimen de tarifación de las fórmulas y preparados oficinales.

g) La falta de contestación, en el tiempo y forma que se señale, de los requerimientos formales, formulados por los órganos de Gobierno del Colegio.

h) La falta de notificación o comunicación al Colegio de todos aquellos datos referentes al ejercicio profesional previstos en los presentes Estatutos de comunicación obligatoria.

*Artículo 27.–* Faltas graves.

Se consideran faltas graves:

a) La reincidencia en falta leve de conformidad con al Art.15.2j de la Ley 18/1997 de 21 de noviembre.

b) Ejercer, encubrir o amparar el ejercicio ilegal de la profesión.

c) Incumplimiento de los deberes previstos en los números 8, 10, 11, 12, y 15 del artículo 21 de los presentes Estatutos.

d) El incumplimiento grave de las normas estatutarias o de los acuerdos adoptados por el Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava, Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco o, en su caso, por el Consejo General de Colegios Farmacéuticos de España, salvo que constituyan faltas tipificadas.

e) Los actos probados de desconsideración manifiesta hacia los compañeros en el ejercicio de la actividad profesional.

f) La captación de recetas fuera de la Oficina de Farmacia y cualquier acto u omisión encaminado a coartar la libertad del usuario en la elección de la Oficina de Farmacia.

g) Impedir la actuación de los Inspectores del Colegio Oficial de Farmacéuticos en las Oficinas de Farmacia u otros establecimientos sanitarios.

h) El incumplimiento de los deberes profesionales y deontológicos que incumben al farmacéutico en su actividad relacionada con la fabricación, distribución, publicidad, conservación, custodia y dispensación de medicamentos, cuando resulte perjuicio para quienes soliciten o concierten la prestación.

i) El incumplimiento de los deberes profesionales que incumben al farmacéutico en materia de información, asesoramiento y seguimiento respecto de los medicamentos que dispense a los usuarios.

j) Dispensar medicamentos en establecimientos distintos de los autorizados legalmente para ello y/o cualquier tipo de venta indirecta, así como la venta de medicamentos a domicilio o por mensajería.

k) No respetar la dignidad del paciente y su derecho individual a la libertad de aceptar o rechazar un tratamiento.

l) La falta de pago de las cuotas colegiales o de otras percepciones, después de haber sido requeridas formalmente.

Elkargoko Gobernu Batzordea eta Euskadiko Sendagaigileen Kontseilua osatzen dituzten pertsonen duintasun edo ohorearen aurka (beren funtzioak betetzen dituztenean) eta gainerako lankideen aurka (lanbidearen jardunean) jokatzea.

n) Elkargoari aldez aurretik jakinarazi gabe osasunerakunde batzuekin akordioak egitea.

o) Lanbide-jardunari lotutako erantzukizun zibilaren aseguramendu-betebeharra ez betetzea.

p) 18/1997 Legearen 15.2 artikuluan larri gisa kalifikatuta dauden arau-hausteak eta, bereziki, b) idatzzatian Estatutuen 21 eta 22. artikuluei dagokienez ezarritakoak.

q) Elkargoaren aldez aurreko baimena behar izanik ere baimenik gabe egiten den edozein jarduera.

r) Gobernu Batzordeak edota Batzar Nagusiak hartutako erabakiak ez betetzea.

s) Arrazoi justifikaturik gabe hauteskunde-mahaiko kide izateari uko egitea.

*28. artikulua.–* Hutsegite oso larriak.

1) Hutsegite oso larritzat ondokoak hartuko dira:

a) Hutsegite larrian berrerortzea, azaroaren 21eko 18/97 Legearen 15.1.g artikuluari jarraiki.

b) Lanbidean Elkargokoa izan gabe jardutea.

c) Intrusismo profesionala eta horren estalketa.

d) Sendabide sekretuak prestatzea eta printzipio aktiboak ezkutatzea.

e) Sendagaiak sustatzean edo jendeari saltzean lehia desleialeko ekintzak egitea, erabiltzaileek farmazia-bulegoa aukeratzeko duten askatasuna urratzen duten heinean.

f) Legeetan xedatutakoari jarraitu gabe saiakuntza klinikoak egitea.

g) Sekretu profesionala urratzea eta ekintza profesionalen izaera pertsonala eta konfidentziala ez errespetatzea, legeetan xedatutako kasuetan izan ezik.

h) Farmazia-bulegoaren jabetza simulatzea.

i) 18/1997 Legearen 15.1 artikuluan oso larri gisa kalifikatuta dauden arau-hausteak eta, bereziki, b) idatz-zatian Estatutuen 21 eta 22. artikuluei dagokienez ezarritakoak.

*29. artikulua.–* Zehapenak.

1.– Ondoko zehapenak ezar daitezke:

A) Hutsegite arinentzat:

a) Ofiziozko ohartarazpen pribatua.

b) Gobernu Batzordearen ohartarazpena Batzorde beraren aurrean.

c) 50.000 pezetara bitarteko isuna.

B) Hutsegite larrientzat:

m) El atentado contra la dignidad u honor de las personas que integran la Junta de Gobierno del Colegio, del Consejo Farmacéuticos de País Vasco, cuando actúen en el ejercicio de sus funciones y contra los demás compañeros en ocasión del ejercicio de la profesión.

n) Cualquier tipo de acuerdo con entidades sanitarias, sin previo conocimiento del colegio.

o) Incumplimiento del deber de aseguramiento de la responsabilidad civil en el ejercicio de la profesión.

p) Las infracciones calificadas como graves por el artículo 15.2 de la Ley 18/1997, en especial las establecidas en el apartado b) en relación con los artículos 21 y 22 de los estatutos.

q) Realizar cualquier otra actividad que requiriendo autorización previa del Colegio se efectúe sin la misma.

r) El incumplimiento de los acuerdos tomados por la Junta de Gobierno y/o por la Junta General.

s) Negativa a formar parte de la mesa electoral sin causa justificada.

*Artículo 28.–* Faltas muy graves.

1) Se consideran faltas muy graves:

a) La reincidencia en las faltas graves de conformidad con el Art.15.1g de la Ley 18/1997.

b) El ejercicio profesional sin pertenecer al Colegio.

c) El intrusismo profesional y su encubrimiento.

d) La preparación de remedios secretos, así como la ocultación de los principios activos.

e) Realizar actos de competencia desleal en la promoción o venta al público de medicamentos en cuanto vulneren la libre elección de los usuarios de la Oficina de Farmacia.

f) La realización de ensayos clínicos sin ajustarse a lo dispuesto en las leyes.

g) Vulnerar el secreto profesional y no respetar el carácter personal y confidencial de sus acciones profesionales, excepto en los casos previstos por las leyes.

h) Simulación de propiedad de la Oficina de Farmacia.

i) Todas aquellas calificadas como faltas muy graves por el Art.15.1 de la Ley 18/1997, en especial las establecidas en el apartado b) en relación con los artículos 21 y 22 de los estatutos.

*Artículo 29.–* Sanciones.

1.– Las sanciones que pueden imponerse son:

A) Las faltas leves, con

a) Amonestación privada de oficio.

b) Amonestación por y ante la Junta de Gobierno.

c) Multa de hasta 50.000 PTA.

B) Las faltas graves, con

a) 50.001 pezetatik 500.000ra bitarteko isuna.

b) Lanbide-jardunerako gabetzea (urtebeteko epe batean gehienez ere).

C) Hutsegite oso larrientzat:

a) 500.001 pezetatik 5.000.000ra bitarteko isuna.

b) Lanbide-jardunerako gabetzea (urte batetik hogeira bitarteko epe batean).

2.– Lanbide-jardunerako gabetzeko edo kanporatzeko zehapena ezartzearekin batera, hala badagokio, osasun-establezimendua zehapenean adierazitako denbora batez itxiko da.

3.– Gobernu Batzordeak, hala badagokio, sendagaigileak beren zuzendaritzapean dauden beste sendagaigile edo profesional batzuek burututako lanbide-jarduerez zein neurritan diren erantzule –subsidiarioki– finkatuko du diziplina-ondorioetarako.

4.– Besteren kontura jarduten den kasuan, zehapena ezagutzeko eskumena duen erakunde edo organoari jakinaraziko zaio.

*30. artikulua.*– Hutsegite eta zehapenen preskripzioa.

1.– Elkargokideen diziplina-erantzukizun korporatiboa ondoko kasuetan amaitzen da: zehapena betetzea, elkargokidearen heriotza, hutsegitearen preskripzioa eta zehapenaren preskripzioa.

2.– Elkargoan baja hartzeak eta dakar altan egondako aldian hartutako diziplina-erantzukizunaren amaiera, bai eta erabakitzen den zehapena betetzeko ezintasuna adierazita ere. Kasu horretan, diziplina-prozesuari amaiera emango zaio eta zehapena etenda geratuko da elkargokidea edozein elkargotan alta hartzen duen arte.

3.– Hutsegite oso larriek hiru urtera preskribituko dute, larriek bi urtera eta arinek urtebetera. Preskripzio-epea hutsegitea egiten denetik aurrera hasiko da kontatzen.

Preskripzioa eten egingo da elkargokideari zehapen-prozeduraren hasierari buruzko erabakia jakinaraztean. Epeak berriz ere aurrera egingo du diziplina-prozedura sei hilabete baino aldi luzeago batean geldik geratzen bada (elkargokide erruztatuari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik).

4.– Hutsegite oso larriengatik ezarritako zehapenek hiru urtera preskribituko dute, hutsegite larriengatik ezarritakoek bi urtera eta hutsegite arinengatik ezarritakoak urtebetera.

Zehapena ez betetzeagatiko preskripzio-epea, organo eskudunak Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialari zehapen-ebazpenaren izaera irmoa jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Zehapena jasotzen duenak zehapenaren betetzea urratzen duenean, urratzen duen egunetik aurrera hasiko da kontatzen preskripzio-epea.

a) Multa de 50.001 a 500.000 PTA.

b) Suspensión del ejercicio profesional durante un plazo no superior a 1 año.

C) Las faltas muy graves, con

a) Multa de 500.001 a 5.000.000 PTA.

b) Suspensión del ejercicio profesional por plazo de 1 año a 20 años.

2.– La imposición de una sanción de suspensión del ejercicio profesional o expulsión, llevará aparejado, en su caso, el cierre por el tiempo señalado en la sanción del establecimiento sanitario correspondiente.

3.– La Junta de Gobierno determinará, en su caso, en qué medida los farmacéuticos son responsables, subsidiariamente, a efectos disciplinarios de los actos profesionales llevados a cabo por otros farmacéuticos o profesionales que estén bajo su dirección.

4.– En el caso de ejercicio profesional por cuenta ajena, se notificará dicha sanción a la entidad u órgano que resulte competente para su conocimiento.

*Artículo 30.*– Prescripción de faltas y sanciones.

1.– La responsabilidad disciplinaria corporativa de los colegiados se extingue por el cumplimiento de la sanción, el fallecimiento del colegiado, la prescripción de la falta y la prescripción de la sanción.

2.– La baja en el Colegio no extingue la responsabilidad disciplinaria contraída durante el período de alta, aunque determinara la imposibilidad de ejecutar la sanción que se acuerde. En tal caso, se concluirá el procedimiento disciplinario y la sanción quedará en suspenso para ser cumplida si el colegiado causase nuevamente alta en cualquier colegio.

3.– Las faltas muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos y las leves al año, comenzándose a contar el plazo de prescripción desde que la falta se hubiera cometido.

La prescripción se interrumpirá por la notificación al colegiado afectado del acuerdo de incoación del procedimiento sancionador, y el plazo volverá a correr si el procedimiento disciplinario permaneciese paralizado durante más de seis meses por causa no imputable al colegiado inculpado.

4.– Las sanciones impuestas por faltas muy graves prescribirán a los tres años; las impuestas por faltas graves, a los dos años; y las impuestas por faltas leves, al año.

El plazo de prescripción de la sanción por falta de ejecución de la misma comenzará a contarse desde el día siguiente a aquél en que se haya comunicado al Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava por el órgano competente el carácter firme de la resolución sancionadora.

El plazo de prescripción de la sanción, cuando el sancionado quebrante su cumplimiento, comenzará a contar desde la fecha del quebrantamiento.

*31. artikulua.–* Diziplina-prozedura.

1.– Diziplina-prozedura korporatiboa, ofizioz (Gobernu Batzordearen erabakiz) edota beste elkargokide, pertsona edo erakunde batzuek idatziz aurkeztutako salaketari jarraiki hasiko da.

Espedienteari ikuskapen bidez hasiera ematen zaionean, ikuskatzaileak ikuskapenean barne hartutako gertakarien akta egingo du iritzirik eman gabe, eta behar bezala sinatuko du ikuskapena jasotzen duenarekin eta eginbidean esku hartzen duenarekin batera. Hauek egintza sinatzen ez badute, ikuskatzaileak aktaren oinean jasoko du eta bi lekukorekin sinatzen saiatuko da.

2.– Hala ere, salaketa jasotzen duena Elkargoko Gobernu Batzordeko kidea denean, salaketa berretsi ondoren Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseiluari igorriko zaio aldez aurreko informazioa eta, hala badagokio, espedientea hasi, bideratu eta ebazteko.

3.– Diziplina-prozedurari lotutako gertakarien salatzailea, prozedura horretan alde izango da eta erabaki guztiak helarazteko eskubidea izango du alegazioak formulatu eta errekurtsoak jarri ahal izateko.

4.– Espedientearen hasiera erabaki aurretik, Gobernu Batzordeak aldez aurreko informazio baten edo informazio erreserbatu baten instrukzioa erabaki ahal izango du. Instrukzioa hau egiteko Batzorde Deontologikoa izendatuko du eta dagokion elkargokideari aldez aurreko informazioaren hasiera jakinaraziko zaio hamar eguneko epean bidezkotzat hartzen dituen alegazioak eta dokumentuak aurkez ditzan. Batzorde Deontologikoak, hilabete bateko epean gertakariak argitzeko eta erantzukizunak finkatzeko komenigarritzat hartzen dituen eginbideak egin ondoren, ondoko proposamenetako bat formulatuko du:

a) Artxibatzeko proposamena.

b) Diziplina-espedientearen instrukzioa egiteko proposamena, elkargokide bati egotz dakizkiokeen erantzukizun larriagoko susmoak ondorioztatzen direnean.

Nolanahi ere, Gobernu Batzordearen erabakia eraginpean hartzen duen elkargokideari jakinaraziko zaio.

*32. artikulua.–*

1.– Diziplina-espedientearen hasiera Gobernu Batzordeak erabakiko du eta berari dagozkio instrukzioa eta ebazpena. Neurri prebentibo gisa, ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko bidezkotzat hartzen dituen behin-behineko neurriak erabaki ahal izango ditu (horretarako elementu nahikorik izanez gero). Interesdunei kalte konponezinak eragin diezazkiekeen edo legeek babestutako eskubideen urratzea dakarren behin-behineko neurririk ezin izango da hartu.

2.– Diziplina-espedienteari hasiera emateko erabakiak berak instrukzio-egilea eta idazkaria izendatuko

*Artículo 31.–* Procedimiento disciplinario.

1.– El procedimiento disciplinario corporativo se iniciará bien de oficio por acuerdo de la Junta de Gobierno, o en virtud de denuncia presentada por escrito de otros colegiados, personas u organismos.

Cuando el expediente sea promovido por inspección, el Inspector levantará el acta de los hechos comprensivos de la misma inspección, sin emitir juicio alguno y la firmará debidamente, junto con el inspeccionado o con el que intervenga en la diligencia. Caso de negarse estos últimos a suscribir el acto, el Inspector lo hará constar así al pie de la misma y procurará firmarla con dos testigos.

2.– No obstante, cuando el denunciado fuere miembro de la Junta de Gobierno del Colegio, una vez ratificada la denuncia, se remitirá al Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco para la incoación, tramitación y resolución de la información previa y, en su caso, del expediente.

3.– El denunciante de los hechos a que se refiera el procedimiento disciplinario tendrá la condición de parte en el mismo, y tendrá derecho a que se le dé traslado de todos los acuerdos, a efectos de que pueda, en su caso, formular alegaciones e interponer los recursos pertinentes.

4.– Antes de acordar la incoación del expediente, la Junta de Gobierno podrá decidir la instrucción de una información previa o reservada, a cuyo efecto designará a la Comisión Deontológica para que la practique, notificándose al colegiado afectado la incoación de la información previa, a efectos de que en el plazo de diez días presente las alegaciones y los documentos que estime pertinentes. Practicadas las diligencias que considere convenientes para el esclarecimiento de los hechos y determinación de posibles responsabilidades en el plazo de un mes desde su apertura, la Comisión Deontológica formulará alguna de las siguientes:

a) Propuesta de sobreseimiento.

b) Propuesta de instrucción de expediente disciplinario, cuando se deduzcan indicios de responsabilidad de mayor gravedad, imputables a un colegiado.

El acuerdo de la Junta de Gobierno será notificado en todo caso al colegiado afectado.

*Artículo 32.–*

1.– La apertura de expediente disciplinario será acordada por la Junta de Gobierno a quien corresponde la instrucción y resolución. Como medida preventiva podrá acordar las medidas provisionales que estime oportunas para asegurar la eficacia de la resolución que pudiera recaer, si existieran elementos de juicio suficientes para ello. No se podrán tomar medidas provisionales que puedan causar daños irreparables a los interesados, o bien que impliquen la violación de derechos amparados por las leyes.

2.– El propio acuerdo de apertura del expediente disciplinario designará el Instructor y el Secretario, tanto

ditu, bai izaera orokorrez, bai izaera bereziz. Gobernu Batzordeak, hala badagokio, instrukzio-egilea eta idazkaria ordezkatu ahal izango ditu, bai eta berriak izendatu ere. Nolanahi ere, erruztatuari zirkunstantzia honen berri emango zaio.

3.– Instrukzio-egileari eta idazkariari Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (ekainaren 26ko 30/1992 Legea) 28 eta 29. artikuluetako abstentzioari eta errefusatzeari buruzko arauak aplikatuko zaizkie.

4.– Instrukzio-egileak gertakariak zehaztu eta egiaztatzeko egokiak diren eginbide guztiak eta, bereziki, zehapena jasan dezaketen erantzukizunak argitzera eta finkatzera zuzendutako froga guztiak burutzea aginduko du. Burututako jardunak ikusi ondoren, instrukzio-egileak dagokion kargu-orria formulatuko du.

Kargu-orria garbi eta zehatz idatzi beharko da. Erruztatuari egotzitako gertakariak paragrafo bereizi eta zenbakituetan jasoko ditu eta, hala badagokio, ustez egindako hutsegitea eta Estatutu hauen aginduei jarraiki aplika daitezkeen zehapenak adieraziko ditu.

5.– Kargu-orria erruztatuari jakinaraziko zaio eta gutxienez hamar eguneko eta gehienez hamabost eguneko epea emango zaio bidezkotzat hartzen dituen alegazioekin erantzun eta interesekotzat hartzen dituen dokumentuak aurkeztu ahal izateko. Halaber, Zuzenbidean onar daitekeen eta beharrezkotzat hartzen duen edozein froga egitea eskatu ahal izango du erruztatuak bere erantzunean.

6.– Instrukzio-egileak hilabete bateko epea izango du bidezkotzat hartzen dituen frogak egiteko eta erruztatuari froga horiek egiteko lekua, eguna eta ordua jakinaraziko zaio esku hartu ahal izan dezan.

7.– Instrukzio-egileak beharrezkotzat edo egokitzat hartzen ez dituen frogen onarpena eta burutzapena soilik ukatu ahal izango du errekurtsorik jarri ezin izango zaion ebazpen arrazoitu bidez, ondorengo jardun eta errekurtsoetan bidezkoak diren alegazioen kaltetan izan gabe.

8.– Interesdunak eskatuta egin beharreko frogek Elkargoak jasan behar ez dituen gastuak dakartzatenean, Elkargoak gastu horien aurrerakina eskatu ahal izango du, behin betiko likidazioa egin arte, froga egin ondoren. Gastuen likidazioa egiteko, gastu horien errealitatea eta kopurua kreditatuko duten egiaztagiriak elkartuko dira.

*33. artikulua.–*

1.– Jardunak amaitu ondoren, instrukzio-egileak ebazpen-proposamena formulatuko du hurrengo hamar egunen buruan eta, bertan, gertakariak zehatz finkatuko ditu. Halaber, frogak ukatu izanaren arrazoia emango du (hala badagokio), gertakarien balorazioa egingo

si estuviesen nombrados con carácter general, cuanto si lo hubieran sido con carácter especial. La Junta de Gobierno correspondiente, en su caso, podrá sustituir al Instructor y Secretario, así como eventualmente designar unos nuevos, notificando esta circunstancia al inculpado.

3.– Serán de aplicación al Instructor y Secretario las normas relativas a la abstención y recusación de los artículos 28 y 29 de la Ley 30/1992, de 26 de junio, de Régimen Jurídico de las Administraciones publicas y del Procedimiento Administrativo común.

4.– El Instructor ordenará la práctica de cuantas diligencias sean adecuadas para la determinación y comprobación de los hechos y, en particular, de cuantas pruebas puedan conducir al esclarecimiento y a la determinación de las responsabilidades susceptibles de sanción. A la vista de las actuaciones practicadas, el Instructor formulará el correspondiente Pliego de Cargos.

El Pliego de Cargos deberá redactarse de modo claro y preciso, comprenderá los hechos imputados al inculpado en párrafos separados y numerados por cada uno de ellos y expresará, en su caso, la falta presuntamente cometida y las sanciones que puedan serle de aplicación, con referencia a los preceptos de este Estatuto.

5.– El Pliego de Cargos se notificará al inculpado, concediéndole un plazo no inferior a diez días, ni superior a quince, para que pueda contestarlo con las alegaciones que considere pertinentes y la aportación de documentos que estime de interés. Asimismo, el inculpado podrá solicitar la realización en su contestación de cualquier medio de prueba admisible en Derecho que crea necesario.

6.– El Instructor dispondrá del plazo de un mes para la práctica de las pruebas que estime pertinentes, sean o no las propuestas, con notificación al inculpado del lugar, fecha y hora para la práctica de las mismas, a fin de que pueda intervenir.

7.– El Instructor podrá denegar únicamente la admisión y práctica de las pruebas que considere innecesarias o improcedentes, en resolución motivada no recurrible, sin perjuicio de las alegaciones que al respecto procedan en las actuaciones y recursos ulteriores.

8.– En los casos en que, a petición del interesado, deban efectuarse pruebas cuya realización implique gastos que no deba soportar el Colegio, éste podrá exigir el anticipo de los mismos, a reserva de la liquidación definitiva, una vez practicada la prueba. La liquidación de los gastos se practicará uniendo los comprobantes que acrediten la realidad y cuantía de los mismos.

*Artículo 33.–*

1.– Transcurridas las actuaciones, el Instructor, dentro de los diez días siguientes, formulará propuesta de resolución en la que se fijará con precisión los hechos, motivará, en su caso, la denegación de pruebas, hará la valoración de los mismos para determinar la falta que

du egintzat hartzen duen hutsegitea finkatzeko, eta erruztatuaren erantzukizuna eta ezarri beharreko zehapena zehaztuko ditu.

2.– Ebazpen-proposamena erruztatuari jakinaraziko zaio, hamar eguneko epean, espedientea ikusi ondoren, instrukzio-egilearen aurrean bere defentsarako komenigarritzat hartzen duen guztia alegatu ahal izan dezan.

3.– Instrukzio-egileak, erruztatuari entzun edo epea alegaziorik gabe igaro ondoren, espediente osoa eta txostena igorriko dizkio Gobernu Batzordeari.

4.– Gobernu Batzordeak espedientea jaso ondoren egiten den lehen bilkuran ebatziko du espedientea.

Hala ere, ebazpena hartu aurretik, Gobernu Batzordeak burutu gabe geratu diren eta behin betiko ebazpen-erabakia hartzeko ezinbestekoak diren izapideak egitea agindu ahal izango dio instrukzio-egileari. Argibide horiek erruztatuari helaraziko zaizkio hamar eguneko epe luzaezin batean komenigarritzat hartzen duena alegatzeko.

5.– Diziplina-espedienteari amaiera emango dion Gobernu Batzordearen ebazpena arrazoitua izango da eta espedientean planteatutako auzi guztiak ebatziko ditu. Horrez gain, kargu-orriaren eta ebazpen-proposamenaren oinarri izan zirenez bestelako gertakariak ez ditu eraginpean hartuko. Erabakia hartzean, espedientearen instrukzio-fasean instrukzio-egile edo idazkari gisa jardun dutenek ez dute esku hartuko.

6.– Gobernu Batzordeak bozketa sekretu bidez eta bertaratutako kideen bi herenen adostasunarekin hartu beharko du erabakia. Quoruma zenbatzean ez dira kontuan hartuko erabakia hartzen esku hartu ezin duten Gobernu Batzordeko kideak.

7.– Emango den ebazpena erruztatuari eta salatzaileari jakinarazi beharko zaie. Halaber, ebazpenaren aurka zein errekurtso jar daitezkeen, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epetan jar daitezkeen adieraziko zaie.

*34. artikulua.*– Errekurtsoak.

1.– Interesdunak, espedienteari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, gorako errekurtsoa jarri ahal izango du Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseiluaren aurrean, hilabete bateko epean. Errekurtsoa Elkargoan aurkezten bada, honek, instrukzioa egina duen espedientearekin eta txostenarekin batera, Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseiluari igorriko dio hurrengo hamar egunen buruan.

2.– Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseiluak emandako ebazpenen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da hilabete bateko epean, bai eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere, bi hilabeteko epean.

considere cometida y precisará la responsabilidad del inculpado, así como la sanción a imponer.

2.– La propuesta de resolución se notificará al inculpado para que en el plazo de diez días, con vista del expediente, pueda alegar ante el Instructor cuanto considere conveniente en su defensa.

3.– El Instructor, oído el inculpado o transcurrido el plazo sin alegación alguna, remitirá el expediente completo a la Junta de Gobierno, con su informe.

4.– La Junta de Gobierno, resolverá el expediente en la primera sesión que se convoque tras la recepción del expediente.

No obstante, la Junta de Gobierno podrá, antes de adoptar su resolución, ordenar al Instructor la realización de aquellos trámites que por omisión no se hubieran llevado a cabo, y resulten imprescindibles para la adopción del acuerdo de resolución definitivo. De dichas aclaraciones se dará traslado al inculpado para que alegue lo que estime conveniente en un plazo improrrogable de diez días.

5.– La resolución de la Junta de Gobierno que ponga fin al expediente disciplinario habrá de ser motivada, resolviendo todas las cuestiones planteadas en el expediente y no podrá afectar a hechos distintos de los que sirvieron de base al Pliego de Cargos y a la propuesta de resolución, sin perjuicio de su distinta valoración. En la adopción del acuerdo no intervendrán quienes hayan actuado en la fase instructora del expediente, en calidad de Instructor o Secretario.

6.– El acuerdo deberá ser tomado por la Junta de Gobierno mediante votación secreta y con la conformidad de las dos terceras partes de los miembros presentes. En el cómputo del quórum no se tendrán en cuenta los miembros de la Junta de Gobierno que no puedan intervenir en la adopción del acuerdo.

7.– La resolución que se dicte deberá ser notificada al inculpado y al denunciante de los hechos, con expresión de los recursos que quepan contra la misma, el órgano ante el que han de presentarse y plazos para su interposición.

*Artículo 34.*– Recursos.

1.– Contra la resolución que ponga fin al expediente, podrá el interesado, en el plazo de un mes, interponer recurso de Alzada ante el Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco. Si el recurso fuera presentado en el Colegio, éste, dentro de los diez días siguientes, lo remitirá en unión del expediente instruido y de su informe al Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco.

2.– Contra las resoluciones dictadas por Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco se podrá el recurso potestativo de Reposición, en el plazo de un mes, o el correspondiente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses.

3.– Diziplina-zehapenak, administrazio-bidez irmoak direnean, Gobernu Batzordeak betearaziko ditu ezarpena erabakitzen duen ebazpenean jaso bezala.

Hala ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri dela egiaztatzen denean, Elkargoko Gobernu Batzordeak, ofizioz edo alde batek eskatuta, hezurmamitu arte betearazpena etetea erabaki ahal izango du, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren esparruan etendura hori eskatzeko duen eskubidearen kaltetan izan gabe. Nolanahi ere, zehapenak lanbide-jardunean gabetzea dakarrenean, betearazpena etenda geratuko da zehapenaren behin betiko irmotasuna iritsi arte.

4.– Lanbide-jardunaren etendura dakarten zehapenek ondorioak izango dituzte Espainiako Sendagaigileen Elkargo Ofizialen esparruan. Horretarako, Euskadiko Sendagaigileen Kontseiluei eta Espainiako Sendagaigileen Elkargoen Kontseilu Nagusiari jakinarazi beharko zaizkie azken honek gainerako elkargoei eta osasun-agintariei helaraz diezazkien.

## TITULUA:
## ELKARGOEN EGINTZEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

### *34. artikulua.–*

1.– Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialeko organoen egintzen eta erabakien araubide juridikoari dagokionez, Administrazio Zuzenbideari lotuta dauden heinean, Estatutu hauetan xedatutakoari lotuko zaizkio eta, halakorik ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen ondoriozko berezitasunen kaltetan izan gabe.

2.– Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialeko organoen egintzen eta erabakien aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango da Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseiluaren aurrean hilabete bateko epean, egintza edo erabaki horiek hartu edo, hala badagokio, eraginpean hartzen dituzten elkargokide edo pertsonei jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Elkargokideen egoera pertsonalari lotutako erabakiak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren Legearen 58 eta 59. artikuluei jarraiki jakinarazi beharko dira.

Errekurtsoa Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseiluaren aurrean edo erabakia eman zuen Sendagaigileen Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzordearen aurrean aurkeztu ahal izango da. Elkargoaren aurrean aurkeztuz gero, honek Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseiluari igorri beharko dio errekurtsoa hamar eguneko epean, espedientea osatzen duten aurrekariekin eta Elkargoaren txostenarekin batera.

3.– Las sanciones disciplinarias, una vez que sean firmes en vía administrativa, se ejecutarán por la Junta de Gobierno en los propios términos de la resolución que acuerde su imposición.

No obstante, la Junta de Gobierno del Colegio podrá acordar, de oficio o a instancia de parte, cuando se acredite la interposición pertinente del recurso contencioso-administrativo, la suspensión de la ejecución mientras se substancie, sin perjuicio del derecho del interesado a solicitar tal suspensión en el ámbito del propio recurso contencioso-administrativo. En todo caso, cuando la sanción consista en la suspensión en el ejercicio profesional, la ejecución quedará en suspenso hasta que la sanción resulte definitivamente firme.

4.– Las sanciones que impliquen suspensión en el ejercicio de la profesión, tendrá efectos en el ámbito de todos los Colegios Oficiales de Farmacéuticos de España, a cuyo efecto deberán ser comunicados a los Consejos de Farmacéuticos del País Vasco y al Consejo General de Colegios de Farmacéuticos de España para que éste lo traslade a los demás Colegios y a las autoridades sanitarias.

## TÍTULO
## DEL RÉGIMEN JURÍDICO DE LOS ACTOS DE LOS COLEGIOS.

### *Artículo 35.–*

1.– El régimen jurídico de los actos y acuerdos de los órganos del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava, en cuanto están sometidos al Derecho Administrativo, se ajustarán a lo dispuesto en el presente Estatuto y en su defecto a la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de las especificidades derivadas de la Ley 18/1997, de 21 de noviembre de Ejercicio de Profesiones Tituladas y de Colegios y Consejos Profesionales.

2.– Los actos y acuerdos de los órganos del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava podrán ser objeto de recurso de Alzada ante el Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco dentro del plazo de un mes, contado a partir del siguiente a aquel en que se hubiesen adoptado o, en su caso, notificado a los colegiados o personas a quienes afecten. Aquellos acuerdos que afecten a situaciones personales de los colegiados deberán ser notificados, de conformidad con los artículos 58 y 59 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas.

El recurso podrá ser presentado ante el Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco o ante la Junta de Gobierno del Colegio Oficial de Farmacéuticos que dictó el acuerdo. Si fuera presentado ante el Colegio, éste deberá remitir el recurso con los antecedentes que formen el expediente y el informe del Colegio en un plazo de diez días al Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco.

Elkargoko Batzar Nagusien erabakien aurka errekurtsoa jarri ahal izango du erabakiek eraginpean hartzen duten edozein elkargokidek, Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseiluaren aurrean, hilabete bateko epean (erabakiak hartzen direnetik kontatzen hasita).

3.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren 30/1992 Legearen 62. artikuluan xedatutako kasuetan barne hartzen diren elkargoko organoen egintzak erabat deusezak izango dira.

4.– Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseiluaren aurrean errekurtsoak amaitu ondoren, Administrazio Zuzenbideari lotuta dauden Sendagaigileen Elkargo Ofizialeko organoen egintzen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da. Halaber, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean.

Aurka egiten den egintzaren betearazpena etenda ulertuko da, eteteko eskaera organo eskudunera iristen denetik (honek erabaki dezan) hogeita hamar egun igaro ondoren organo honek berariazko ebazpenik ematen ez duenean.

TITULUA:
DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

***36. artikulua.***– Desegitea eta likidazioa.

1.– Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofiziala desegiteko Eusko Legebiltzarraren legea beharko da, 18/97 Legearen 31.3 artikuluan xedatutako kasuan izan ezik.

Elkargoaren desegite eta likidazioaren arrazoiak ondokoak izango dira:

a.– Estatutuen 5. artikuluan jasotako Elkargoaren helburuak lortzeko ezintasun nabaria.

b.– Elkargoko gobernu-organoen behin betiko etendura, funtzionamendua eta berritzea ezinezkoak izanik.

c.– Lanbide bereko beste elkargo batekin edo batzuekin bat egitea, horretarako deitutako Ezohiko Batzar Nagusian elkargokideen hiru laurdenek hala erabakitzen dutenean. Erabakia Eusko Jaurlaritzari helaraziko zaio honek zuzenbidearen arabera bidera dezan.

2.– Elkargoa desegiteko prozedurak likidazioaldia zabalduko du. Elkargoaren desegitea baimentzen duen legeak Elkargoaren ondarearen, eskubideen eta betebeharren likidazioa ezarriko du. Soberakinik izanez gero, bere helburua finkatuko da Batzar Nagusiak erabakitzen duenari jarraiki.

TITULUA:
ESTATUTUEN BERRIKUNTZA.

***37. artikulua.***– Estatutuak berritzeko prozedura.

Los acuerdos de las Juntas Generales del Colegios podrán ser recurridos por cualquier colegiado a quien afecte personalmente ante el Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco en el plazo de un mes desde su adopción.

3.– Son nulos de pleno derecho los actos de los órganos colegiales en que se den alguno de los supuestos previstos en el artículo 62 de la vigente Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas.

4.– Los actos de los órganos del Colegio Oficial de Farmacéuticos, sujetos al Derecho Administrativo, una vez agotados los recursos ante el Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco, podrán ser recurridos potestativamente en reposición o directamente recurribles ante la Jurisdicción contencioso-administrativa.

El acto impugnado se entenderá suspendido en su ejecución si transcurridos treinta días desde que la solicitud de suspensión haya tenido entrada en el órgano competente para decidir sobre la misma, éste no ha dictado la resolución expresa.

TÍTULO
DE LA DISOLUCIÓN Y LIQUIDACIÓN

***Artículo 36.***– Disolución y liquidación

1.– La disolución del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava precisará de ley del Parlamento Vasco, salvo que se trate del supuesto previsto en el artículo 31.3 de la Ley 18/1997.

Serán causas de la disolución y liquidación del Colegio las siguientes:

a.– La imposibilidad manifiesta de procurar los fines del Colegio contemplados en el artículo 5 de los estatutos.

b.– La paralización definitiva de los órganos de gobierno del Colegio, de modo que resulte imposible su funcionamiento y reposición.

c.– La fusión con otro u otros colegios de la misma profesión, cuando así lo acuerde las tres cuartas partes de los colegiados en Junta General Extraordinaria convocada al efecto. El acuerdo se trasladará al Gobierno Vasco para su tramitación con arreglo a derecho.

2.– El procedimiento de disolución del Colegio abrirá el periodo de liquidación. La Ley que autorice la disolución del Colegio establecerá la liquidación de su patrimonio, derechos y obligaciones, fijándose el destino del remanente si existiese, de acuerdo con lo que decida la Asamblea General.

TÍTULO
DE LA REFORMA DE LOS ESTATUTOS.

***Artículo 37.***– Procedimiento para la reforma de los Estatutos.

Estatutuak berritzeko ekimena Gobernu Batzordeari dagokio. Honek, horretarako deitutako Ezohiko Batzar Nagusiaren menpe jarriko du proposamena.

Era berean, elkargokideen %20k hala nahi badute Estatutuen berrikuntza eskatu ahal izango da.

Erabakitzen diren Elkargoaren Estatutuen aldaketak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari jakinaraziko zaizkio honek agindu bidez behin betiko onarpena eman dezan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehena.–* Estatutu hauek, onartzen dituen Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehena.–* Estatutu Orokor hauek indarrean sartu aurretik hasitako zehapen-prozedurak bideratzen jarraituko da aurreko araudiari jarraiki ebatzi arte, araudi berrian xedatutako neurriak aplikatzearen kaltetan izan gabe (erruztatuarentzat hobeak izanez gero).

*Bigarrena.–* Estatutu hauei jarraiki, hautatutako karguak 18 hilabeteko epe batean berritu beharko dira, Estatutu hauek indarrean sartzen direnetik kontatzen hasita.

*Hirugarrena.–* Euskadiko Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legean xedatutakoari jarraiki, Euskadiko Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseilua eratu arte Administrazio Zuzenbideari atxikitako Arabako Sendagaigileen Elkargo Ofizialaren egintzen eta erabakien aurka gorako errekurtsoa eta aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarriko dira (administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik) Espainiako Sendagaigileen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiaren aurrean.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena.–* Estatutu hauek indarrean sartzean, Elkargoaren Estatutu hauetan ezarritakoaren aurkakoak diren estatutu-arau eta arau osagarri guztiak indargabetuta geratuko dira.

La iniciativa para la reforma de los estatutos corresponderá a la Junta de Gobierno que someterá la propuesta a la Junta General Extraordinaria convocada al efecto.

También podrá instarse la reforma de los estatutos cuando así lo solicite el 20% de los colegiados.

Las modificaciones que se acuerden a los estatutos colegiales serán comunicadas al Departamento de Justicia, Economía Trabajo y Seguridad Social para su aprobación definitiva mediante Orden.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Los presentes Estatutos entrarán en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco la Orden del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco que los apruebe.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* Los procedimientos sancionadores que se hubieren iniciado con anterioridad a la entrada en vigor de los presentes Estatutos Generales seguirán tramitándose hasta su resolución de conformidad con la normativa anterior, sin perjuicio de aplicar las medidas previstas en la nueva normativa si fueran más favorables al inculpado.

*Segunda.–* Deberá procederse a la renovación de los cargos electos de conformidad con los presentes Estatutos en el plazo máximo de 18 meses desde la fecha de entrada en vigor de los presentes Estatutos.

*Tercera.–* Hasta la constitución del Consejo de Colegios Oficiales de Farmacéuticos del País Vasco, con arreglo a lo dispuesto en la Ley 18/1997, de 21 de noviembre, de Colegios y Consejos Profesionales del País Vasco, los actos y acuerdos del Colegio Oficial de Farmacéuticos de Álava, sujetos al derecho administrativo, serán objeto de recurso de alzada y potestativo de reposición, previo al contencioso-administrativo, ante el Consejo General de Colegios Oficiales de Farmacéuticos de España.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* A la entrada en vigor de los presentes Estatutos quedarán derogadas todas las normas estatutarias y complementarias que se opongan a lo establecido en los presentes Estatutos Colegiales.